

EZAGUTU SORKUNTZA ETA DISEINUKO GRADUA

- **Jakintza adarra:** Arteak eta Giza Zientziak
- **Campusa:** Bizkaia
- **Ikastegi antolatzailea:** Arte Ederren Fakultatea
- **Gradua/k:**
Sorkuntza eta Diseinua
- **Garapen-lekua (helbidea):** Arte Ederren Fakultatea. Sarriena auzoa z/g, Leioa

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

EHUko Arte Ederren Fakultatean ematen den **Sorkuntza eta Diseinuko Gradua** modu praktiko eta sortzailean ezagutzeko **unibertsitate orientazioko jardunaldi** batean parte hartzera gonbidatzen zaitugu.

Hiru tailer dinamiko eta parte-hartzaileraren bidez, lehen pertsonan esperimentatuko duzu nola lan egiten den marrazketa, diseinu grafikoa eta paper gaineko teknika grafikoak bezalako arloetan. Jardunaldi horri esker, lehen kontaktua izango duzu unibertsitate-graduaren edukiarekin eta ikuspegiarekin.

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

Jardunaldian zehar, **funtsezko edukiak landuko dira modu praktiko, dinamiko eta parte-hartzailean**, eta ikasleek Sorkuntza eta Diseinuko Graduari lotutako hainbat diziplinarekin bertatik bertara esperimentatzeko aukera izango dute. Zehazki, gai hauek landuko dira:

- **Marrazketa, behaketarako, analisi bisualerako eta adierazpenerako** funtsezko tresna gisa ulertuta. Gidatutako ariketen bidez, ideiak modu bisualean egituratzea eta forma ematea ahalbidetzen duten oinarrizko kontzeptuak aztertuko dira.
- **Diseinu grafikoa, ikusizko komunikazioan** eta mezuak, emozioak eta ideiak transmititzeko gaitasunean oinarritutako ikuspegiarekin. Funtsezko arloak sartuko dira, hala nola identitate bisuala, diseinu editoriala edo *packaging* diseinua, ikasle-proiektuen adibide errealak erabiliz.
- **Serigrafia, erreprodukzioko eta inprimaketako teknika garaikideen barruan** duen aplikazioa aztertuz. Ikasleek estanpazio-prozesu osoarekin esperimentatu ahal izango dute, eta haien sormen-potentziala ezagutu ahal izango dute.

Graduko ikasleek egindako proiektuak ere aurkeztuko dira, horietako asko **Garapen Jasangarriaren Helburuei (GJH)** lotutakoak. Horrela, sorkuntzak

eta diseinuak gizarte justuagoa, iraunkorragoa eta kontzienteagoa lortzen lagun dezaketela ikusiko duzu.

Hori dela eta, tailer bakoitza **10 minutu** inguruko **sarrera teoriko** labur batekin hasiko da. Bertan, Sorkuntza eta Diseinuko Graduoko ikasleek egindako proiektu batzuk aurkeztuko dira, eta ondoren egingo den **praktika testuinguruan kokatzeko sarrera** bat.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

Jarduera hiru tailerrek osatzen dute, elkarren artean atsedanak dituztela. Antolatzaileek emango dituzte material guztiak.

MARRAZKETA TAILERRA

Marrazkiaren oinarritzko kontzeptuak landuko dituzu: **ahokadura, proportzioa eta konposizioa**. Praktika gidatu baten bidez, irudikapenari aplikatutako estrategia batetik formak nola marrazten eta behatzen diren jakingo duzu.

DISEINU GRAFIKOKO TAILERRA

Labur azalduko dira diseinu grafikoaren kontzeptua eta haren arlo esanguratsuenak (identitate bisuala, grafiko editoriala, seinaletikaren diseinua, bilgarriaren eta enbalajearen diseinua (*packaging*), web-diseinua, etab.). **Sintesi grafikoko praktika bat** egingo duzu, eta horren emaitzak teknika grafikoen lantegian erabiliko dituzu.

SERIGRAFIA TAILERRA

Paper gaineko teknika grafikoen mundua aztertuko duzu, **serigrafiari** arreta berezia eskainiz. Zure diseinu grafikoa **fotolito** bihurtuko duzu, eta zuk zeuk paperean inprimatuko duzu, serigrafiako pantailak erabiliz. Amaitzean, talde osoak egindako lanak biltzen dituen karpeta kolektibo bat eramango duzu.

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordua	Plazak
2026-01-21	Gaztelania	Goizez	09:15–14:00	20
2026-01-21	Euskara	Goizez	09:15–14:00	20